

Adiskidea eta ardoa, zenbat eta zaharrago, hobe.
Zenbat eta berba gutxiago, hobe.
Zenbat eta gehiago edan, are gehiago edan behar.

Zenbat eta gehiago ikusi begiak, orduan eta gehiago nahi.
Zenbat eta eroago, orduan eta barre gehiago.

Zenbatenaz gosea handiago, hainbatenaz janaria goxoago ¹.

¹ Esapideak esapide, ohikoagoa izaten da izenondoa ‘zenbatenaz’ eta ‘hainbatenaz’ horien ondotik joatea:

Zenbatenaz handiago gosea eta hainbatenaz goxoago janaria.

Edo, bestela:

Gosea zenbatenaz handiago, hainbatenaz goxoago janaria.

Esamoldeok korrelazioak dira, hizkuntzan oso erabiliak.
Maila- edo kantitate-parekotasun bat adierazten dute.

Esakune eta atsotitzotan ez ezik, eguneroko hizkeran nahiz hizkera landuan ere erabiltzen dira halako egiturak.

Azter ditzagun adibide batzuk:



ZENBAT ETA ...-AGO (-eN/BAIT-), (ORDUAN/HAINBAT ETA) ...-AGO

-eN/BAIT- mederagailuak aditz forma jokatuak ditugunean erabili behar dira. (Ikus bedi 8. diapositibako adibide parean).

Hegoaldeko tradizioan erabiltzen dira halako egiturak.

ZENBAT ETA ...-AGO (-eN/BAIT-) ... (ORDUAN ETA) ...-AGO


Euklidesek berak adierazia zuen, K. a. 300. urte aldera, ezen **zenbat eta** gauza bat urruti**ago**, **orduan eta** txikiagoa zela hark begiaren barrenean eratzen zuen irudia.

Aumont, Jacques: *Irudia*, EHU, 2004 (euskaratzailea, Josu Zabaleta)
(moldatua)

Tamaina bateko laginetan, **zenbat eta estuagoa** izan fidagarritasun-tartea, **orduan eta gutxiago** fida gaitzke hartaz. Alderantziz, **zenbat eta zabalagoa** fidagarritasun-tartea, **orduan eta gehiago** fida gaitzke hartaz.

Paulos, John Allen: *Zenbakirik gabe bizi*, EHU (ZIO bilduma), 2006 (euskaratzailea, Josu Zabaleta).

[moldatua]



ZENBAT ETA ...-AGO (-eN/BAIT-) ... (HAINBAT ETA) ...-AGO

Zergatik jarraitzen dute bizirik gaiztoek, zenbat eta zaharrago, hainbat eta indartsuago?

Jb 21, 7

Elizen arteko Biblia, Idatz, 2004

Zenbat eta gaiztoagoa izan gaiztoa, hainbat eta hobea izango da filma.

Alfred Hitchcock

ZENBATE(NA)Z ...-AGO, HAINBATE(NA)Z ...-AGO

Ekialdeko tradizioan erabiltzen dira halako egiturak.

Zenbatenaz eta gerla, tormenta eta eritasuna izan baitira handiago eta perilosago, hainbatenaz gero ondoko bakea, denbora ederra eta osasuna ere dira estimatzenago.

Agerre, Pedro “Axular”: *Gero*, 1643.

[moldatua]

Zeren bizitzen garenean hiltzen baikara. Eta zenbatenaz eta gehiago bizitzen baikara, hainbatenaz heriotzeko portura hurbiltzenago gara..

Agerre, Pedro “Axular” : *Gero*, 1643.

[moldatua]

'ZENBAT' gabe ere sor daitezke korrelazioak.

...-AGO, ...-AGO

Zaharrago, zoroago.

Tximinoa, zuhaitzean gorago, uzkia ageriago.

Esapide eta eseretan erabiltzen da egitura hori, batez ere.

GERO(AGO) ETA ...-AGO

Geroago eta ederrago dago gure auzunea.

Gero eta ikus-entzunezkoetara emanago daude gazteak.

GEROAGO (ETA) ...-AGO

Geroago ederrago dago gure auzunea.

Langileak geroago gehiago ohartuko dira eta jarriko elkarren laguntzeari. (Jean Etxepare, *Buruxkak*, 1910) (moldataua)

Denboraren arabera bideratzen da korrelazioa adibide horietan.

Era honetako korrelazioek ezin dute ***Gero eta** ... hasiera izan: ez perpausaren hasieran, ez bigarren partearen hasieran.

***Gero eta** azkarrago ibili, lehenago iritsiko zara.

***Zenbat eta** salgai gehiago egon, **gero eta** aberatsagoa izango da azoka.

***Zenbat eta** gehiago jardun, **gero eta** hobeto mintzatuko zara frantsesez.

Hauek dira esamolde zuzenak:

- **Zenbat eta azkarrago** ibili, **hainbat eta lehenago** helduko zara.
- **Zenbat eta azkarrago** ibili, **orduan eta lehenago** helduko zara.
- ...

- **Zenbat eta salgai gehiago** egon, **hainbat eta aberatsagoa** izango da azoka.
- ...

***Orduan eta** ... hasiera ere ezin dute izan halako korrelazioek (perpausaren hasieran, jakina).

***Orduan eta** zaharragoa izan biztanleria, **orduan eta** etorkin-kopuru handiagoa izango da gizartean.

Esamolde zuzena, hona:

■ **Zenbat eta** zaharragoa izan biztanleria, **orduan eta** etorkin-kopuru handiagoa izango da gizartean.

■ ...

Bada beste hutsegite bat korrelazioaren atal biak berdintzen dituen:

*Gero(ago) eta aberatsago, gero(ago) eta zoritxarrekoago.

*Gero(ago) eta gehiago irabazi, gero(ago) eta zorritxarrekoago.

Hona, esamolde zuzena:

■ **Zenbat eta aberatsago, orduan eta zoritxarrekoago.**

■ ...

Gehiago jakiteko, ikus bedi:

“Korrelazioak”, in EUSKALTZAINDIA (1999), *Euskal Gramatika Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-1)*, 428-438.

